

## BELDURRA

### Erraz piztu daitekeen sentimendu eta eraikuntza kulturala

**Idazlea: Eli astiasaran**

**Webgunea: [www.gaiak.net](http://www.gaiak.net)**

Presio arteriala handitzea, metabolismoa azkartzea, odoleko glukosa areagotzea, adrenalina igotzea, begiak ireki eta begi-niniak zabaltzea... Beldurra sentitzen dugunean gure gorputzean izaten diren aldaketak dira horiek. Gizakiak berezko hainbat sentimendu bizi izan ditu betidanik. Horien artean, eta bere biziraupenerako garrantzitsuenetakoa, beldurra da. Inguruan arrisku erreal edo imaginario bat sumatzen dugunean sentitzen dugu. Inguratzen gaituzten arriskuez ohartarazi eta horiei aurre egiten laguntzen digun erantzun biologikoa dugu beldurra.

Defentsa eta biziraupen mekanismoa azpimarratzen dituen ikuspegi biologizistatik harago, ordea, beste hainbat zientziak edo diziplinek ere aztertu dute emozio hori. Psikologiarentzat, egoera emozional hori ezinbestekoa da organismoa ingurunera egokitzeko eta giza subjektibitatea egituratzen du. Ikuspuntu sozial eta kultural batetik, beldurrak gizakiaren eta gizartearen izaeraren parte da. Beraz, testuinguru edo objektu zehatzek beldurra ematea, edo ez ematea, ikasi egiten da. Horrela, beldurra eraikuntza kultural bat dela esan dezakegu. Heldu diezaiogun bada baieztapen horri.

Denbora eta kultura desberdinetan zehar, harreman sozialek sortu dituzte gizakiak bizi duen errealitatea eta mundua esperimintatzeko aukera ematen duten sentimenduak: poza, maitasuna... eta ikara. Historiaurreko gizarteetan, beldurrak zentzu positiboa omen zuen, harrapari eta eguraldiaren arriskuetatik babesten zuen heinean, giza espeziearen iraunaraztea bermatzen baitzuen. Gizarteak garatu ahala, beldurraren inguruko teoriak ere hala egin zuten. Boteredunek masak kontrolatzeko edota herria euren nahiera modelatzeko erabiltzen zuten eta dute beldurra. Horren adibide garbia ditugu nazismoa bezalako politika autoritarioak, zeinak terrorea erabiltzen zuten euren agintea egonkortzeko. XX. mendean zehar, beldurraren eraikuntza soziala estrategia politikoari eta terrorearen ikonografiari zuzenean lotzen zaie. Izan ere, gobernuek, komunikabideek edota erlijioek helburu jakinak lortzeko erabiltzen duten bitarteko edo arma da izua.

Beldurraren igorle nagusietakoak boteredunek kontrolatutako mass mediak ditugu. Orson Wellsek komunikabideek herritarren artean beldurra sortzeko duten indarraren adibide garbi bat eskaini zuen 1938an. *The War of the Worlds (Munduen arteko gerra)* nobelaren bertsio moldatua eraman zuen irratira, zuzeneko emisio batean. Estralurtarren inbasio baten berri zuzenean ematen ari zirela antzeztu eta irratsaioaren hasiera entzun ez zuten entzuleek, hots, asmatutako gidoi bat zela ez zekitenek, berria erreal zelakoan, gertakariak sortutako izua New York eta New Jerseyko klaseetara eraman zuten. Polizia-etxe eta erredakzio-bulegoak kolapsatu zituzten, babes bila, ikaratutako entzuleek. Sortutako histeria kolektiboak masa-komunikabideen boterea islatu zuen.

Joanna Bourke historialariaren ikerketa baten arabera, 1980 eta 1985 bitartean, 17 pertsonak galdu zuten bizitza AEBn ekintza terroristen ondorioz. New York Timesek, ordea, edizio bakoitzeko batez beste terrorismo gaiei buruzko 4 artikulua argitaratu zituen. 1989 eta 1992 bitartean, berriz, 34 estatubatuar hil ziren munduan zehar arrazoi berberetatik. Denbora tarte horretan, AEBko liburutegietan 1.300 liburu sailkatu zituzten "terrorismo" errotulupean. Egun, hildakoak, gerrak, gaixotasunak, istripuak, lapurrak, bortxaketak, terroristak... eguneroko kontua dira gure etxeetako telebista, ordenagailu eta egunkarietan. Gure artean bizi dira.

Larritasuna, estresa, gaixotasunak... beldurraren emaitza dira. Gizakiok zalantzarikoa eta ezezaguna den etorkizun baten aurrean sentitzen dugun beldurraren oinordekoak dira. Izu hori gizarte batean hedatzen den heinean, beldur kolektibo bilakatzen da. Ullrich Beck soziologoak, gure gizarte

“arriskuaren gizartea” bezala definitu zuen eta haren ezaugarri nagusiak dira, besteak beste, erakundeen krisia, eskubide sozialak galtzea, pentsamendu bakarra ezartzea, propio egindako desinformazioa eta populazioaren deshezkuntza progresiboa. Beldurra gizarte hori hobekien definitzen duen elementuen artean dago.

Balioak, ekonomia, ongizate-gizartea, finantza-sistema... krisian dauden garai honetan, arriskua, segurtasun ezaren sentazioa eta ondorioz beldurra nabarmenagoak dira. Hiru ezaugarri horiek berak dira komunikabide, alderdi politiko eta erakunde sozialen diskurtsoetako lehengai nagusiak eta kontrol sozialerako aitzakia bikainak. Ekintza-beldurra-ekintza eskema gure gizartea gobernatzen duen dialektika bilakatu da.

Beldurra, izakiari arriskuez ohartarazi eta erreakzionatzeko aukera eman eta defentsa antolatuz, babesteko funtzioa zuena, manipulaziorako tresnatzat erabiltzen du eliteak. Beldurra dagoen suntsipen-armarik onena da, desioak erautsi, norbanako nahiz kolektibo baten ekintzak geldiarazi edo mugatu baititzake. Ikaratua bizi den herriak ez du hausnartzen, ez eta ekiten edo eragiten ere. Lana galtzeko beldur den herritarrak ez ditu, badaezpada, bere eskubideak defendatzen; ekintza terrorista baten beldur bizi den herritarra ez da autobusean azal iluna duen gizonaren ondoan esertzen...

### **Ba al zenekien?**

- Beldurrak giza gorputzean eta osasunean eragiten du. Ilea dugu horren adibide garbia. Izuak, ilea galtzea, zuritzea edota puntan jartzea eragiten du. Antsietatea eta estresa sortzen ditu, eta muturrera joanda, pertsona hil daiteke beldurraren ondorioz. Kontraesankorra dirudien arren, espeziearen biziraupena bermatzen duen sentimenduak heriotza eragin dezake.

- Elementu negatiboz josia egon arren, beldurrak gizakia erakartzen du. Esaterako, beldurrezko filmek jarraitzaile mordoa dituzte. Terrerezko film bat ikusi ondorengo sentazioa kirola egin ondoren sentitzen denarekin pareka daiteke. Askatzen den adrenalinen kopuru altuak gorputza nekatua uzten duenez, eguneko estresa gainetik kentzeko erabiltzen dute askok. Zentzu horretan, beldurra adrenalina askatzeko terapia da.